
*Eskerrik beroenak **Rufo Atxurra**ri berak emondako laguntza apartekoagatik*



"LEKEITIOKO BERBAK" LANTALDEA

LEKEITIOKO UDALA

itsasoa

Lekeitioko berbak (1)

"LEKEITIOKO BERBAK" LANTALDEA



LAGUNTZA: 200PTA.

"LEKEITIOKO BERBAK" LANTALDEA

Altzibar, Kontxi
Korrea, Marta
Laka, Judith
Ogando, Naroa
Portillo, Nere
Retolaza, Arantza
Seijo, Jon Mikel
Seijo, Joseba Andoni

LAGUNTZAILE ETA GAINBEGIRATZAILEAK

Kaltzakorta, Mitxel
Madariaga, Sabiño

IRUDIEN EGILEAK

Zubiaur, Jon
Txakartegi, Bittor

DISEINUA ETA MAKETAZIOA

TRAM•Grafik

Lekeitioko berbak

Lekeitioko geure-geure berbak galtzen doaz belaunaldirik belaunaldi. Hori dala-eta, Legegintzaldi honen hasikeran Lekeitioko Udaleko hiru alderdiok pentsatu genduan ahalegintxo bat egin behar zala berba horreek berreskuratzeko.

Asmo horrek eraginda, beharrean hasi zan Lekeitioko Udaleko Euskera Azpibatzordea. Hasikeran, pertsona bati emotea pentsatu zan, beka baten bidez-edo. Baina, gero, hobeto pentsatuta, egokiago iritzi geuntson lantalde bat osatzeari, uste genduan-eta talde batek ikuspuntu zabalagoa izango ebala pertsona batek baino.

Hasi ginan beharrean, eta oratu geuntson dagoen biografiari Lekeitioko berben gainean: "Descripción fonética del euskera de Lekeitio" tesia, Mara Salinas lekeitiarrak eginikoa eta 1976an Deustuko Unibertsitatean aurkezturikoa; "Focalización y prosodia en vascuence vizcaíno" liburua, Elordieta neba-arreba lekeitiarrek eta Jose Ignacio Hualdek idatzirikoa; eta "Itsas Hiztegi Teknikoa" lizentziaturako lana, Andoni Barainka lekeitiarrak 1988an Nautika Eskolan aurkeztutakoa. Zoritxarrez, behar eta liburuok ez euskuen asko lagundu, izan be, lehenengo biak fonetikaren gainean dihardue-eta, eta hirugarrena, barriz, itsasoari orokorrean dago zuzenduta.

Liburu bakarra geratu jakun aztertzeko, eta, zorionez, ez edozelakoa: Azkueren hiztegia. Baina baita "Sustraia" aldizkariko ale bat be, Azkueren oroimenez argitaratua 1984an. Eskuetan dozun lehenengo kuadernotxo hau inprimategian egoala, gure eskuetara heldu zan "Bizkaiko Arrantzaleen Hiztegia" Eneko Barrutiak idatzia. Liburu hau oraingoz albo batera itzi dogu, eta Azkueren hiztegia hartu dogu oinarri behar egiteko.

Beharraren metodologiari jagokonez, nahiago izan dogu hiztegia liburu bakarrean barik koadernotxoka atera, izan be liburuak, zoritxarrez, apalen betegarri erabilten dira gehienetan. Kuadernotxoak gaika dagoz antolatuta: "Itsasoa", "eguraldia", "onomatopeiak", "arrainak", "burla edo irainak", "gorputzeko atalak", ...Eurotako berbak ahalegindu gara definizio bidez emoten, eta hobeto aditzeko, marrazkiz hornitzen eta adibide eta kanta argigarriz janzten. Gainera, adibideok asmatuak barik erabili-erabiliak dira herrian.

Zelako euskerea erabiliko dogun liburutxoetan, horren gainean esan behar dogu definizioetarako bizkaiera batua erabiliko dogula, araututa dagoan ginoan. Adibideak eta kantak dirala-eta, erdibidea hartu dogu: Lekeitioko ahozko esaldiei orraztu batzuk emon deutseguz, baina beti be ahozkoaren gatza eta berakatza galdu barik.

"Lekeitio" berbea bera be eztabaidatu genduan zelan idatzi ("Lekitxo" edo Lekitto"). Argi dago gaurko gazteek "Lekitxo" darabilela; baina adinean gora egin ahala geroago eta gehiago darabile "Lekitto". Bestalde, Udalak eta Euskaltzaindiak "Lekeitio" dauke onartuta. Guk be, logikoa danez, gure erakundeen bidetik jo dogu, eta "Lekeitio" onartu dogu bizkaiera baturako.

Gure behar hau eskoletako neska-mutikoei zuzendu nahi deutsegu batez be, eurak erabili eta landu beharko dabe-eta, onartuten badabe, behintzat. Horregatik, bada, kuadernotxoak modu pedagogikoan argitaratuko doguz, maisu-maistrek euren ikasleen artean banatu eta behar egin degien. Geroak esango deusku igarri dogun. Bitartean behar hau izan degiela Lekeitioko euskerearen onerako. Hori da gure asmoa.


"LEKEITIOKO BERBAK" LANTALDEA
Lekeition, 2001eko udabarrian

a

apatx

1. Mojojoia. Itsaski klase bat.

2. Animalien oin azpiak.



"Astuen apatxak be jango neukez". Esan nahi dau gose nazala.

"Apatxak be gasta egin nebazan mutil baten atzetik". Esan nahi dau luzaro segitu neutsola mutil bati.

arranegi/arrandegi

1. Arrain dendea.

2. Lekeitioko auzo ezaguna. Bertan eguneko arraina saltzen da.

"Arranegitar andrari gorantziak bai danori kartak bialdu deuskuela gaur goizian Pasaitik...".

"Aurtengo Gabonetan ez da ia lebatzik ikusi arranegian. Lebatzik ez harrapatzeko debeku horrek denok ixorratu gaitu".

atezuan

1. Barkua amarralekuari lotzen daben sokea tentsinoan dagoanean, ia apurtu beharrean dagoanean.

2. Pertsonea estu dagoanean.


"Zelako atezuak daukadaz barruan!" (estutasunak, morapiloak).

"Patxi, botoi horreek atezuan dagoz" (noiz apurtuko).

atoian

1. Erremolkean eroan.

"Barku horrek atoian daroa batela".



BAXURAKO BAPORA

b

balantzaka



1. Itsasontzien ibilkera bat da, batera-besteraka ibiltea olatuak eraginda.

2. Ibilkera klase bat (alboraka), mozkortu batzuena.

"Atxur galanta atrapa eta balantzaka joan zan etxera".

balaunka


1. Erderazko "balanceando".

"Bilin-balaunka jausi da eskileretan behera".

batel

1. Txalupea, itsasontzi txikia. "Potin txikiña" izena be erabilten da.

"Joxe Mielen batela txitxarrua ta berdela..."



baxura

1. Arrantzako tokia. Kostatik legua batera-edo. Leku horretan dabizen itsasontziei esaten jake "baxurako baporak". (Berba hau "bajura" ahoskatzen da Lekeition, jauna lantxerik).

"Baxurako arrantzuan ez dago etorkizunik".

boga

"Boga-boga marinela joan behar dogu urrutira..."

1. Haitz arteko arrain zuria.

2. Arraunean egin.




deslai

1. Itsasontziaren egoera bat da, eta bertan noraezean dabil, nora jo edo zuzendu ezinean itsasoak eraginda.

2. Pertsonearen egoera bat da, eta bertan nora barik dabil, galduta.


despiska



PATXI HIRUMAILAKOTIK BERDELA DESPISKATEN


1. Harrapatu eta gero, sare bitarteetan kateaturiko arrainak (batez be antxobak) ateratea.

"San Pedropeko, San Pedropeko
iturriaren aurrian
hamalau atso
despiskan dagoz
Askatasun baporian".



ATUNARI AMUA KENTZEN

IUTA



dzanga egin

1. Salto egitea uretara buruz behera.

"Moilatik
dzanga egitea
gustatzen jat".

dzangada

1. Dzanga egitea.

"Dzangada batzuk eginda
joan nintzan etxera".

dzapart

"Porteru hori abila da
dzapart egiten".

"Atzetik etorri eta
dzapart egin eustan
lepora".

1. Salto egitea uretara hankaz behera (hankak behean dirala).

2. Salto mota bat.
Gaztelaniaz "lanzarse", "estirarse".

dzapartada


1. Dzapart egitea.

"Athletiko porteruak
zelako dzapartadak egiten dauz ba!"

dzingo


1. Berba honek
esan nahi dau
uraren sakonera (hondura)
txikia.

"Hamen ez dago dzingorik
dzanga egiteko".



estrepo

"Isuntzan estrepotarako be ez dabe egiten".
Esan nahi dau estrepo asko apurtzen dabela.



1. Soka forma bat da,
biribila, eta erabilten da
arrauna eusteko toletari.

gangil

1. Plataforma antzekoa da garabia dabela.
Erabilten da (edo zan) portuetan-eta honduko
harriak eta basak aterateko.


2. Bizitasun bako pertsonea, arranke bakoa.
Gauzak ganora gitxigaz egiten dabena.

"Itsaso zantarra dagonian,
harrankilia bota eta itxaron.
Zer egingo dogu ba?"

harrankila


(Harri-ankila)

1. Tramankulu hau osatzen dabe egurrezko (edo burdinazko) beso bik (edo gehiagok) erdian dabela harri bat. Erabilten da itsasontzia hondoari lotuta eukiteko.



hondura

1. Uraren sakonerea.



iuta

1. Plastikozko hari zuri gogorra, erabilten dana arrainak harrapatzeko (berba hau baino arinago "pitea" erabilten zan).

"Atzo Talan arrainetan nenbilen,
eta atrapa nebanian itzelezko arraina
iutak palt egin eta eskapa egin eustan arrainak".

kabana

1. Arrain fabrikea.

"Zorioneko txaketia ta
zorioneko gonia
zorionean (edo "zoritxarrean") ikasi neban
kontziopera (edo "kabanarako") bidia".

m

maluta

1. Arrainetako (gehienbat atunetako) engainu klase bat.

2. Neska ederra, mundiala, zotin eragitekoa.

manu

1. Sokea, txikota-eta nasai-nasai dagozanean.

"Manu ipini gero!, txikota mehea da-eta".

"Gerrikoa manu ipini (egizu)".

o

oreka

1. Itsasontziaren egoera bat da, eta bertan nasai, bare dago, ez dago-eta ez olaturik ez tirainik.

2. Txori batzuen egoera bat da, eta bertan geldi-geldian dagoz, ez batera ez bestera, zirkinik egin barik.

p

palt egin


1. Haria (edo iuta, txikota,...) etetea, apurtzea.

paparroiak



1. Hondarreko eta igeri egiteko jantzia gizonentzat.

"Paparroiak ondiño ez jataz sikatu".



tankea

1. Portuetan-eta egoten diran (edo ziran) burdinazko amarralekuak barkuentzat. (Zaharragoak Lekeition portuko eta barrako buiak esaten eutsen).

tiraina

1. Bestelan esateko, “korrontea”.

“Gaur tirain handia dago erreioan”.

“Olatuak gaur tirain handia dauke”.


tosta

1. Bateletako edo potinetako jezarlekuak.

tostarte

1. Potinetako tosten arteko hutsunea da.

2. Tostartekoak: marineroak.




“Gaur eguneko mutilak kokolotuta dagoz ligatzeko; norberak ez badotze traiña botaten ez dago zereginik”.

“Barkuak traiña apurtuta datoz etxera eta deittu saregiñari”.

traiñ

1. Antxobea harrapatzeko sare klase bat.

2. Neska-mutilak be traiña botaten deutse gustoko dabenari ia harrapatzen daben eta hasten diran alkarregaz ibilten.




tretza


1. Apariu mota bat amu askokoa. Besigutarako erabilten da gehienbat.

treotzara

1. Otzara klase bat da tretzak eroateko amuak karnatatuta (karnatea dabela).

"Bota treotzaria Mertzedes, Mertzedes...".





tuntuxa

1. Buia klase bat, (besigutako) apariuaren sokea batzekoa.

2. Andrearen tripatzarra seindun dagoanean.

"Zelako tuntuxa dauko ba!, gitxi falta jako botadurarako".

txitxiñ

1. Antxoa txikia da, eta karnatatzat erabilten da atuna harrapatzeko.

2. Gitxi garatu edo hazitako mutiko edo neskatoa.

3. Zakilaren esanahi lagunartekoa.

"Gure Aitor be ondo mutiko txikiña dogu ba: hamar urte daukoz eta txitxiñak baino bulto gitxiago dauko".

txo

1. Itsasontziko txikienari esaten jakon. (Gaur "mutil txikia" esaten jako).

2. Edozein mutili deitzeko erabilten da.

3. Neskari deitzeko POTXUA erabilten da.



"Txo! Zer darabilzu hor?".

"Potxua! Zer darabilzu hor?.

Z

zingan egin

"Joan zingan isla atzera".
Esan nahi dau baketan izteko.

1. Arraunean egiteko modu bat da erabilten dana potin txikietan eta bateletan. Batelak popa aldean hutsune bat dauka, biribil antzekoa. Bertan ipinten da arraun txiki bat eta albo batera eta bestera eragiten jako. Normalean erabilten da marineroak karreatzeko itsasontzitik moilara, edo moilatik itsasontzira.

